

B

BARREN

TOKIKOM

**“Hanka
hutsik
nabilenetik
beti epel
dauzkat
oinak”**

Jose Mari Ondarza





*Heziketa zikloaren
ondoren...*

*ikasi eta lan,
biak batera!*

Ate irekiak UZTAILAK 1
(18:00etan)

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es

LAGUNAK

KOLTZOI DENDA - TEXTIL HOGAR

ZATOZ GURE ERAKUSKETA BERRIA IKUSTERA!



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com

Eskerrik asko Altzolako bizilagunei

Nola hasi... nola hasi azaltzen kasualitatez eta prisaka heldu ginela Javi eta biok auzo abandonatu eta ezezagun honetara. Altzolari buruz ari naiz. Egia esan, hasieran aldi baterako bizilekutzat hartu genuen, beste pisu bat bilatu bitartean, baina bertan jarraitzen dugu.

Bizilagunek daukaten harreman estuak asko harritu gintuen (hiri handietan ez da holakorik ikusten) baita auzoko bertako urritasun edo gabeziei aurre egiteko asmo sendoak ere.

Auzoko hainbat ume, guraso eta gazte parke txiki batean biltzen dira, eguneroko gauzetaz eta Altzolari buruz hitz egiteko: errepidea, frontoia, etabar... nahiz eta gehienetan astebururako ekintzaren bat antolatzearen inguruan jarduten duten.

Javi eta ni txakurrarekin irteten ginenean beti norbait hurbiltzen zitzaigun gurekin hitz egiteko, gonbidapenen bat egiteko... egia esan, oso ondo onartu gintuzten, eta poliki-poliki auzoko jende eta berezitasunak ezagutuz joan gara.

Gehien harritzen gaituena zera da: lokal baten inguruan auzoa lau zatitan banatuta egotea. Lehen gazte elkarte zenean biltzen direnak, jubilatua, Zubibai elkarte, eta auzoko

arazoetaz interesik ez duten beste hainbat. Horri irtenbide bat aurkitzea zaila ikusten dut, Udalak beste aldera begiratzen duen bitartean, denek dutelako euren arrazoi zati bat, gai pertsonaletan sartu arte. Hala eta guztiz ere, ez diote ekintzak antolatzeari uzten...Egun gutxi barru, San Juan jaiak izango dira, eta antolatzaileak lan handia ari dira egiten. Auzo elkarteek, berriz, txangoak, tailerrak.. antolatzen dihardute. Egia esan ez gara aspertzen, beti daukagulako zer egin! Eta nahiz eta auzo isil eta ahaztu bat izan, sekulako bizimodu interesgarria eman digu Altzolak. Horregatik, eskerrik asko bertako bizilagunei!



Natalia Estop

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibar.com

**“Auzo isil eta ahaztu bat izan arren,
sekulako bizimodu interesgarria eman digu Altzolak”**

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Maiatzeko irabazlea:
**MILA
ASTIGARRAGA**

Ekaineko saria:
**SERENITY
MASAJEA
PINDEKIN**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Jose Angel Zabala

MAHASTI



*Urdaitegia
eta
ardandegia*

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72




- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

JOSE MARI ONDARZA

A photograph of Jose Mari Ondarza, an elderly man with a long white beard, sitting on a metal chair outdoors. He is wearing a white shirt and olive green shorts, and is barefoot. The background is a stone wall.

“Ez diot sekula
bidaiatzeari laga,
irudimenarekin
bada ere”

Mendaroko Azpilgoeta auzoan jaioa dela-eta, *Arnopeko txindurrixa* dela esatea gustatzen zaio Jose Mari Ondarzari, umetatik Elgoibarren bizi bada ere. Bere itxura bereziagatik ezagutuko duzue askok, ile eta bizar luze zurituarekin eta oinutsik ibiltzen delako, baina munduan barrena ibili den 66 urteko gizon honek badauka zer kontatua. Soldadutza egiten itsasoan pasatu zituen hilabeteek bizitza aldarazi ziotela dio. Ordutik, idazle eta bidaiari nekaezina izan da. Bidaia-tzea abentura zen sasoietan, Egipto, Iran edo India moduko herrialde urrunetara ailegatu zen, hegazkinik hartu gabe. Idazteko duen zaletasunaren ondorioz, berriz, *Los senderos del movimiento* liburua idatzi eta argitaratu zuen.

Elkarrizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Oinutsik ibiltzen zara. Zergatik?

Aiba dios. Zergatik? Horixe delako naturale-
na. Hanka hutsik jαιο nintzen ni, hortaz, txarra ezin liteke izan.

Denok ere hala jαιο ginen, baina ez dut urte guztian hanka hutsik ibiltzen den beste inor ezagutzen. Oker al gaude denok?

Oker ez, tontotuta. Baita neu ere. Halaxe hezi gintuzten, eta halakoxeak gara.

Alkandora eta galtzak ere soberan daukazud orduan!

Halaxe da. Muga batzuk daude, ordea, eta ez daukat gogorik horrelako tontokerietan borroka egiteko. Lagatzen didaten neurrian neurea egingo dut... eta kitto!

Aitortuko didazu, baina, jendeari atentzioa deitzen diola.

Denetarik entzun behar izan dut. Andraren bat edo bestek hotzik ez al dudan pasatzen ere galdetzen dit. Horrelakoetan erantzutea da egin dezakedan txarrena, galdera inozoa bada, are gehiago baita erantzuna, bere sinpletasunagatik. Hortaz, hobe isilik geratzea.

Noiztik ibiltzen zara oinutsik?

Haizeak eman zidanetik. Arantzazu inguruan botak laga eta oinutsik igo nintzen behin Aizkorriara. Akorduan daukat dena elurtuta zegoela. Gaztetan oinutsik ibiltzen nintzen mendian. Han, baina, inork ez ninduen ikusten. Urteetan egon nintzen ortozik ibili gabe, eta orain hiru bat urte hasi nintzen berriz ere. Berdin du euria edo elurra egin, gorputza

ohitu egiten da. Sandaliekibiltzen nintzenean, ohean sartu eta hiru ordu behar izaten nituen neguan oinak epeltzeko. Oinutsik nabiletetik beti epel daukat oinak. ZirkulazioA hobetu zaidala uste dut.

“5.000 pezetarekin etxetik irten eta Iberiar Penintsula zeharkatu nuen”

Izarraitz eta Aizkorriko harriak zorrotzak dira ba...

Oinak ohitu egiten dira, eta mina agoantatzen ikasten da. Hala ere, orain hasieran baino min handiagoa ematen dit. Hori ez da mina, ordea. Minik handiena etxe azpian ditudan gazteek eman didate, ateratzen duten zaratarekin. Inori opa ez diodan urte eta erdiko tortura bizi izan dut. Demaseko istiluak izan ditut eurekin.

Hori da bizitzan pasa zaizun gauzarik okerrena?

Okerrena nire anaiaren heriotza izan zen. 13


urterekin hil zen, eta nik artean 15 urte neuzkan. Soldadutza ere ez zen gazte horiekin eduki dudan arazoa bezain txarra izan.

Soldadutzaren gaia atera duzenez, non egin zenuen?

Bi urte pasa nituen soldadutza egiten: *“Uno por idiota y otro por tonto: dos años”*. 21 hilabete egin nituen *Temerario* izeneko Fragatan, Cartagenan (Murtzia). Gogorra izan zen soldadutza itsasoan egitea, baina, era berean, harekek aldarazi zidan bizitza. Itsasoan bizitakoak mendirako joera piztu zidan, nolabait, eta bidaiatzeko grina sortu.

Lehen bidaiara nora egin zenuen?

Etxetik 5.000 pezetarekin irten eta Iberiar Penintsula osoa zeharkatu nuen, soldadutza amaitu eta urtebetera (1966an). Hirugarren mailako trenetan bidaiatu nuen. Zenbat botatzen ditudan faltan egurrezko bagoi haiek! lhese egitea, gauza berriak ikustea, abentura... nahi nituen. Bidaiara guztiak bakarrik egin ditut, bat izan ezik. Penintsulatik ibili ostean, hurrengo urtean, Italia alderantz jo nuen Gabilondorekin, orain Brasilen bizi den elgoibartarrarekin. Ez genuen elkarrekin asko iraun. Pisara ailegatu ginean gaua pasatzeko kanposantu bat bilatu behar genuela aipatu nion, ordurako gogoko nuelako gaia. Hurrengo egunean nire planak ez zirela berarentzat modukoak esan zidan. Erromarantz jo genuen eta han banatu ziren gure bideak.



Mendian hasi zen ortozik ibiltzen Jose Mari Ondarza. Argazki hau Urbia inguruan ateratakoa da. Argazkia: Pako Gabilondo



Jose Mari Ondarza gamelu gainean,
Egipton, Gizeheko esfingearen aurrean.

Bidaiatzeaz, gainera, idaztea duzu gustuko, ezta?

Ez daukat ikasketarik eta akats ortografiko askorekin idazten dudan arren, ez asperzearren hasi nintzen idazten soldadutzan. Etxera itzuli nintzenean, ezin nuen idatzi gabe egon. Lanera joaten nintzen eta etxera bueltatzean, ohean etzan –beti horrela idazten dut–, eta idatzi egiten nuen. Liburu bat ere idatzi nuen, *Senderos del movimiento* izenekoa. Lehen parteari honako izenburua jarri nion: *La muerte y su yo, hacia los honores de la nada*, eta bigarrenari: *Los huespedes de la infinita esencia*. Hor idatzi nuen guztia, beste mundu batzuekin konexioren bat izango banu bezala, nire barrutik irten zen, ez zen inon ikusia edo ikasia.

Asko kosta zitzaizun argitaratzea?

Jorge Oteizarengana jo nuen bere oniritzia jaso eta liburua argitaratzeko laguntza eskatzera. Arzuzara joan nintzen. Han agertu zen Oteiza bere Citroenean, emaztearekin. “Paper batzuk dauzkat zuretzako”, esan nion. “Ondo da, segituan amaituko dugu”, erantzun zidan, eta zera esan nion nik: “Segituan amaitzeko hobe da ez hastea”. Hura entzunda etxera sartzeko esan zidan. Liburua argialetxe batera eramango zuela agindu zidan arren, asko luzatzen zela-eta, liburua berreskuratzera itzuli nintzen. Debaiko lagun batzuekin kontaktuan jarri ninduen, eta haiexek pasa zidaten nik eskuz idatzitako guztia makinaz. Azkenean nik neuk argitaratu behar izan nuen, hamar urteko ilobak egin zidan azalarekin. Etxean dauzkat mordo bat, 60-70 bat ale.

Heriotza aipatu duzula-eta zer gertatu zen hiltzat eman zintuen eskela harekin?

Orain dela bi urte aspalditik gogoia neukan gauza bat egin nuen: neure eskela jarri nuen kolean, abuztuaren 8an, nire urtebetetze egunean. Nola idatzita zegoen ikusita txantxa bat zela begibistakoa zen arren, batek baino gehiagok eman zizkion dolu-minak nire arrebari.

Idazten jarraitzen duzu?

Bai, egunero. Idatzi nuen liburua, *Senderos del movimiento*, berridazten ari naiz. Honezkeroko hogeitatu izenburu bururatu zaizkit, eta *Rio, mitos y otros movimientos* da oraingoz gehien gustatu zaidana.

Nora egin zenituen hurrengo bidaiak?

Bidaiatzeko egiten nuen lan. Tornularia izan naiz 13 urte nituenetik, eta pentsatutako tokira bidaiatzeko erabiltzen nuen urtean zehar aurreztutako dirua. Espainia eta Italiara eginko bidaien ostean, Afrika iparraldeko kostaldea (Melilla eta Argelia), Grezia, Estambul eta Egipto ezagutu nituen. Bost egun behar ziren Bartzelonatik Egiptora barkuz bidaiatzeko. Egipton egon eta gero, 1971. urtean, Indiara ailegatzea izan zen nire helburu bakarra.

Zer dago, bada, Indian?

Saiatu, askotan, baina behin bakarrik ailegatu naiz Indiara. Bidaiatzeko hegazkinik hartzen ez nuenez, ailegatu aurretik nekatu eta bueltatu egiten nintzen. Turkiaraino iristen nintzen batzuetan, Iraineraino besteetan... eta halako batean, dozena bat saiakeraren ostean, Indiaraino ailegatu nintzen azkenean. Orain dela 30 urte izan zen. Zer dagoen Indian? Egia esan ez zen nik espero nuena bezalakoa izan: tripako minak eduki nituen, jende eta zarata larregi zegoen, etabar. Bitxia da, orduetik egin ditudan irteeretan sekula ez naizelako Iberiar Penintsulatik irten.

Zer blatzen duzu bidaietan?

Sekula ez naiz bueltatzeko asmoarekin irten etxetik, baina ez dut bertan geratzea merezi duen tokirik topatu oraindano.

Oraindik ere bizirik daukazu bidaiatzeko grina?

Bai, beti gordetzen dut diru apur bat hil bukaeran, nire pentsio txikiak lagatzen didana, bidaiaren bat egiteko. Horrela, inoiz bidaiatzeko haizeak jotzen badit, txartela erosi eta hor noa. Dena den, ez diot sekula bidaiatzeari laga; irudimenarekin bada ere. Fisikoki bidaiatzeko ilusioa ez dut oraindik

galdu, hala ere. Berriz Indiara itzultzeko go-goia daukat.

Bidaia horietako bitxikeria mordo bat izango dituzu, ala?

Turkiako herri txiki batean miseria gorria zer den ikusi nuen behin. Soldaduak gosez hiltzen ari ziren herritarrei kamioietatik janaria nola botatzen zieten ikusi nuen. Iranen birritan izan naiz. Sha [enperadorea] oraindik agintean zegoenean behin, eta Jomeini aiatolak boterea hartu zuenean (1980), beste behin. Ez zegoen inolako kontrolrik, eta Turkiatik autobusean sartu nintzen. Mugan geundela gazte batzuk, iraultzaren guardiak ziur asko, autobusean sartu ziren bidaiariak miatzeko asmoz. Niri ez zidaten tutik esan, bertakotzat hartuko ninduten-eta [barrez]. Gertaera historiko baten lekuko izan nintzen gero Iraneko hiriburuan, Teheranen. Trintxeraz inguratutako eraikin batekin topo egin nuen, kasualitatez. Estatu Batuetako enbaxada zen. [1979ko azaroaren 4an, ikasle iraultzaile multzo batek Estatu Batuetako enbaxadan sartu eta bertan zeudenak bahitu zituen. Berriki eraturako Irango Errepublikak Islamikoaren sustatzaileek AEBei exijitu zieten xah edo enperadore ohia estraditatu zezaten, eta hark metatutako aberastasunak Irango botere berriaren esku utzi zituzten. Algeriaren bitartekaritza esker 444 egunen buruan amaitu zen okupazio hurra].

Zure bizar luzeak eta iburak lagunduko zizun paraje horietan?

Ez beti. Afganistanera sartzan saiatu nintzen, baina ez zidaten laga. Beste batean, berriz, Argelian nengoela, Fidel Castrokekin nahastu ninduten gazte batzuek. Denbora asko ez zela bertan egona zen Fidel Castro, eta bere irudiz josita zeuden kaleak.

Elkartasun erromeria

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, presoek aldeko elkartasun erromeria ospatuko dute lehenengo aldiz, bihar, Ermuaran-Sallobenten. Jaia eta aldarrikapena uztartu dituzte, eta egun osorako egitaraua osatu dute, presoek eta haien senideei babesa agertzeko. Egitarau osoa Agenda atalean daukazue ikusgai.

JOSEBA ELUSTONDO,

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kidea

“Itxaropentsu daude presoak”

Elkartasun erromeria antolatu duzue biharko. Zein helbururekin?

Azkeneko hilabeteotan errepresioa areagotu egin da, bai senideekiko eta baita elkartasuna adierazten duen edozeinekiko ere, eta hori gelditzeko modu bakarra gizartea mobilizatzea dela ikusten dugu. Horren barruan antolatzen ditugu guk ekintza guztiak, eta hau ere testuinguru horretan ulertu behar da. **Zenbaiten ustez, presoek eskubideen aldeko elkarteek mezu politikoa zabaltzen dute askotan, alde humanoa ahaztuta. Zein da presoek eta haien senideek bizi duten egoera?**

Bisita egunetan, bidai luze-luze batekin hasten da eguna senideentzako. Asteburu honetan, esaterako, 750 kilometro egin ditugu Castelloko kartzelara arte. Gastu handia, arriskua eta nekea dakar horrek. Kartzelak nahiko autonomoak dira gero, senideei *bis a bis*-etarako zein neurri ezarri behar zaien erabakitzeko orduan, eta batetik bestera aldea egon daiteke, baina zirkular bat badabil hor bueltara. Zirkular horretan esaten da komenigarria dela bisitan don orori argazkia eta DNA frogak egitea. Bisita baimena lortzea bera zaila da. Presoak eskertzen du senide edo lagunaren bisita, pertsona hori duelako bide bakarra kanpoan gertatzen denaren berri zuzena izateko. 30-40 minutu eskas izaten dira, eta handik irten, eta bide luzea beriz, etxera itzultzeko.

Harreman zuzena daukazue zuek preso elgoibartarrekin. Nola ikusten dituzue?

Ilusioarekin daude. Ematen du aldaketa politikoa bat ematen ari dela kanpoan, eta itxaropentsu daude. Barruan dagoenarentzat, gainera, itxaropena galtzea da azkena. Horixe da hain justu ere espetxe politika honen helburua: barruan dagoena zein kanpoan daudenak ahultzea, irtenbiderik ez dagoela sinestazita.

Urtarilean presoek borroka dinamika bat hasi zutela iragarri zuen Euskal Preso Politikoen Kolektiboak. Zertan datza?

Borroka dinamika hori, hasieran, borroka bateratua izan zen, eta orain, espetxe espetxe aldiriko borrokaldi moduko bat egiten dute. Euren eskubideak errespetatzea eskatzen dute. Zigorra bere osoan edo zigorraren hiru-laurdenak beteak dituztenak libre lagatzea, gaixorik dauden presoak berehala askatzea eta sakabanaketa amaitzea. Azken batean euskal preso guztiak Euskal Herriratu ditzatela, euren eskubideen jabe direla. Eta, era berean, kartzela politika zuzentzea. Labur esanda, miaketak, jipoiak, mehatxuak eta xantaiak amaitzea.

➔ JOKIN URAIN LARRAÑAGA

Abxilotze data: 1986ko urtarrilaren 10a.

Zigorra: 30 urte. 2009ko abuztuaren 29an bete zuen ezarritako zigorra, baina 197/06 doktrina aplikatu eta 2016. urtera arte luzatu zioten zigorra.

Kartzela: Dueñas (Palentzia)

Kartzela aldaketak: Herrera de la Mancha, Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Sevilla, Teruel, Valdemoro, Bonxe, Dueñas.

➔ SEBASTIAN ETXANIZ ALKORTA

Abxilotze data: 2002ko abenduaren 17a.

Zigorra: 28 urte.

Kartzela: Villenan dago preso.

Kartzela aldaketak: Soto del Real, Valdemoro eta Villena.

➔ MIKEL IBAÑEZ OTEIZA

Abxilotze data: Uruguain hiru urte egin zituen preso (1992-1995). 2007ko martxoaren 8an, Parisen atxilotu zuten, eta Espainiara estraditatu zuten.

Zigorra: Espetxealdi arindua betetzen ari da etxean.

Kartzela aldaketak: Preso egon den denboran Uruguai, La Sante eta Soto del Realgo kartzelak ezagutu ditu.

➔ JUAN MARI MENDIZABAL ALBERDI

Abxilotze data: 2009ko apirilaren 30a.

Zigorra: 8 urte + 6 hilabete.

Kartzela: Bonxe (Galizia).

Kartzela aldaketak: Soto del Real, Alcalá, Bonxe, Soto del Real eta Bonxe.

Egoera soziala: bakartuta.

➔ ARNALDO OTEGI MONDRAGON

Azkeneko atxilotze aldia: 2009ko urriaren 14an Espainiako Poliziak atxilotu zuen.

Zigorra: 2 urte + 2 urte+ 3 hilabete.

Kartzela: Logroño.

Kartzela aldaketak: Preso egin duen denboran Martutene, Soto del Real, Estremera, Navalcarnero eta Logroñoko kartzelak ezagutu ditu.





BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gora zuek!

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendutik eskerrak eman nahi dizkizuegu aurreko astebukaeran Castelloko espetxera etorri zineten guztioi. Euskal presoekiko elkartasuna hain garesti ordaintzen den garai hauetan, baldintzarik gabeko konpromiso eta ilusioa erakutsi duzue 1.500 kilometroko bidea eginez.

24 ordu izan ziren, bertan bizi izan genituen bi ordu eskasek, ordea, hori eta gehiago merezi izan zuten. Zer esanik ez bertan gelditu zirenentzat, haien eskubideen aldeko borrokan, helarazi genien elkartasun dosiak denbora luzez elikatuko duelako barruan daramaten dinamika.

Bidaia hau bukatu da, baina ez bidea, aurrerantzean ere asko dugu ibiltzeko, asko dugu esateko. Eta nahiz eta gogorra eta luzea izan datorkiguna, meheziko dugu, egin berri dugun bidaia honen moduan.

Hesien atzetik zioten moduan; gora zuek!

Elgoibarko AAM ☾

Altzolako lokalen erabilera

BARRENEKO azkeneko alean argitaratutako kexa baten harira, Izaskun Irastorzak, Altzolako jubilatuek erabiltzen duten lokalaren arduradunak, eta Jesus Mari Urbietak, auzoko bizilagun guztiek erabili ahal izateko lokalaren arduradunak, honako hau adierazi nahi dugu:

1- Jubilatuen lokala jubilatuek eurek erabiltzen dute. Hala ere, lokal hori beste edozein taldek ere erabil dezake,

beti ere aurrez jakinarazten badu eta ohiko erabiltzaileen jarduna oztopatzen ez badu.

2- Aldameneko lokala Zubibai elkartearena da, eta elkartekoei eurek erabiltzen dute eskusiboki.

3- BARRENEKO kexak hirugarren lokalari egiten zion aipamena, eta lokal hori Altzolako bizilagun guztiena da. Edonork erabili dezake, ez baitago inolako debekurik. Inoiz ez zaio inori han sartzea galarazi. Sartu nahi izan duenak zabalik izan du beti atea.

Oso erraza da anonimotasunetik akuzazio merkeak helaraztea, eta sinatu gabe argitaratu den kexa hori bidali duenari/dutenei zera eskatzen diegu: eman dezetela lokal horretan sartzea debekatu zaion pertsona baten izena

Era berean, belarri tirakada bat eman nahiko genioke BARRENI, era honetako kexa bat aurrez egiaztatu gabe argitaratzen. Izan ere, kexa horrek ezinegon handia sortu du auzotarren artean. Informazio hori egiaztatu izan balitz erraz saihestu zitekeen egonezin hori.

Izaskun Irastorza eta Jesus Mari Urbietak ☾

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 · 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:




KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odría, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Andres
Alberdi

Larunbat goizaduk, eta ez zekiat zergatik, egunkarietako berri txarrek eraginda ala Pello Arrietaren erretiroa dela-eta atzo izandako parrandatxoaren ajeak jorik, baina ezkor nagok

gaur.



Angel
Ugarteburu

“Zer lotsagaldua ari zaigun bihurtzen gizartea!

Agur, etikari; kaixo, zinismoari”

Ez euskaldunoi dagozkigun kontuengatik bakarrik: ez diat ulertzen zergatik jarraitzen duten espetxean Arnaldok, Mendik eta besteek; beldur nauk, mehatxu beltz, laster datozkigun Udalbitzaren aurkako epaiketarekin (zuen iloba Marivi tartean), Donostialdeko gazteen aurkakoekin; oso kezkatu nagok, auskalo nork eragindako krisia dela eta, denok larrutik nozitzen ari garen injustiziarekin...

Bitartean, jakin diat Espainiako futbol-selektzioek, guztiak milioioidunak, Munduko Kopa irabaziz gero, bakoitzak 550.000 euro irabaziko dituela. Eskandalua eta iraina dituk horiek krisia pairatzen ari diren guztientzat, baina lasai jarraitzen diagu denok bakoitzak bere munduan: “Besteak hor konpon!”.

Eta errematea Europako Parlamentuko albiste batek eman zidak. Parisko 68ko maiatzean aurre samar ibili, eta gaur egun Berdeen diputatu den Daniel Conhn-Bendit-en ahotik entzundako salaketa duk. Denok dakigunez, Europak Greziari dirua utzi zio, baina Europak % 3an lortutakoa, Greziari, % 5ean utzi omen zio. Eta Greziak diru hori ondo erabiliko al du? Ba, itxuraz, ez, Greziak, Zipreko auzi militarra tarteko, diru hori gastu militarretan gastatuko baitu. Sei fragata erosi omen ditik dagoeneko (2.500 milioi euro), eta helikopteroak (400 milioi) eta sei submarino (1.000 milioi)... Nori erosi? Ba, Frantziari eta Alemaniari! Gurpil zoroa guretzat; negozio zikina beste batzuentzat. Zer lotsagaldua ari zaigun bihurtzen gizartea! Agur, etikari; kaixo, zinismoari.



Ezkor izateko motiborik ez dok falta, Andres! Marx-ek argi azaldu lez, ekonomiak mugitzen jittuk historiaren gurpilak eta diruak ez jakikak bihotzik, ez jakik ezer justiziaz edo Herri txikien etorkizunaz. Diruaren zerbitzura jartzen diren politikoez ere ez. Garapen itsuaren bidetik doan mundu honen begi, belari, buru eta bihotz izango diren politikoen zain gagozak, ez dagian lokomotorak gizakia bide galduan jarri. Ekonomia, dirua, gizakiaren zerbitzura jartzeko gai ez bagaituk, ez joagu asko balio, segurua dok porrota.

Zinismoa aitatu dok eta harira datorren aipu bat aurkitu joat azken ostiraleko Berrian. Nazioarteko arkitektura kongresua egin berri dok Iruñean eta hantxe izan dok hizlari Slavoj Zizek, esloveniar pentsalaria. Zinismoaren gailur izan daitekeen adibide bat eman jok:

“Irakurri dudanez, diño berak, Jerusalem-en eraikin handi bat egin behar dute, erlijio guztiak, denak errespetatuz, bere barnean hartuko dituen. Santutasunaren parke tematiko bat juduentzat, musulmantzat, katolikoentzat... Bakearen ikur gisa saltzen dute hori, eremu hartatik bota dituzten palestinarrek aipatu ere egin gabe”.

“Diruak ez jakik bihotzik, ez jakik ezer justiziaz edo Herri txikien etorkizunaz”

Badirela jakin arren, aipatu ere egiten ez diren miseriak dira. Ez jagok oso azkarra izan beharrik, urrutira gabe antzeko egoerak aurkitzeko.

Ez joat, baina, ezkor izan nahi. Itxaropenaren izarra bizturik jagok. Anestesiasten ez gaituzten bitartean, justiziaren alde egiteko prest gauden bitartean, ez gagozak hain txarto. Ohartu ere ez egitea litzatekek, benetan, azkena.



Elgoibarko Udala




Datorren eguaztenean, ekainaren 23an, piztuko dituzte San Juan suak.

Zer botako zenuke San Juan sutara?




Josu Perez
14 urte, ikaslea

Ikastolako liburu guztiak botako nituzke gustura sutara, baina batez ere, Natur Zientzietakoa. Oso astuna da, eta asko ikasi behar izaten da ikasgai horretan. Udan ez daukat ikasteko asmorik! Ez dut dena gainditu, baina, udan lasai egon behar da.



Ignacio Ortiz
14 urte, ikaslea

Matematikako eta geometriako fitxak ondo hartuko dute sua! Ikasgai guztiak gainditu ditut, baina bi horiek bereziki, oso zailak dira. Udan ondo pasatzeko asmoa daukat. Lagunekin irten, kalean ibili eta gozatu egin behar da udan, eta liburuak ahaztu.



Itotz Vitores
14 urte, ikaslea

Ikastolako koadernoak erabili izan ditut noizbait San Juan sua egiteko, eta sua oso handia ez bada salto egiten dugu suaren gainetik. Matematikako eta Gizarteko liburuak botako nituzke gustura, baina normalean liburuak ez ditugu erretzen. Ikastea gogorra da, eta pozik emango nieke liburuei sua.



Imanol Ansola
14 urte, ikaslea

Ikastolako liburuak gustura botako nituzke, baina anaiak beharko ditu datorren urtean, beraz, gorde egin beharko ditut. Kartoi eta paper bila ibiltzen gara normalean sua egiteko, baina aurten ez dugu egingo eta seguruenik Eibarko jaietara joango gara.



ESKERTZA

CLARA ARGINBERRI ELORRIAGA

2010eko ekainaren 2an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

FERMIN ARRIETA ETXABE

2010eko ekainaren 16an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Hainbat herritarrek zarata handia ateratzen dute Ermuaran-Sallobenten: “Joan zen domekan Ermuaran-Sallobentera joan nintzen lasaitasun apur baten bila, baina ez nuen horrelakorik aurkitu. Herriko hainbat lagun zeuden barbakoa egiten eta musika bolumen altuan jarrita zuten. Ingu-rune guztian zabaltzen zen kea, eta musika ere denontzat zela ematen zuen. Errespetu apur bat eskatu nahi diet lagun horiei, eta Udalari berriz, egoera honen aurrean neurriak har ditzala. Ermuaran-Sallobenten beti izan dugun bakea arnastu nahi dugu”.



Jendeak ez ditu Udalak jarritako oharak errespetatzen: “Obrak egin behar zituztela eta, zabor edukiontzia ez erabiltzeko abisua jarri zuen Udalak orain dela hamabost egun inguru Antonio Arrillaga kalean. Hogei metrora daude edukiontzia, San Inazio kalean, eta obrak amaitu bitartean zaborra hara eramateko eskatzen zuten. Jendeak ez du kasurik egiten, eta zaborra edukiontzien kanpoko aldean lagatzen du. Auzokideekiko errespetu apur bat eskatzen dugu. Egin kasu abisuei, mesedez, de-non hoberako izango da-eta”.

Ikastetxei ez zaie kobratzen Herriko Antzokiaren alokairua: Udaleko Kultura Sailak eta Herri Eskolak joan zen astean BARREnek Herri Eskolako jaialdiari buruz argitaratu zuen kexa bat argitu nahi dute, eta haiek esandakoaren arabera, ikastetxei ez zaie kobratzen Herriko Antzokiaren erabilera.



Txalo bero bat Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleei: “Trinitate jaietan dantza saio bikaina eskaini zuten Plaza Handian Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak. Txalo bero bat merezi duzue ikasle eta irakasle guztiok. Jende asko bildu zen zuek ikusteko, eta izugarri gozatu genuen”.



Txalo bero bat Zeroseite akordeoi orkestrari: “Trinitate jaietan Zeroseite akordeoi orkestrak kontzertua eman zuen Madalan, eta izugarri gustatu zitzaigun. Gainera, nire sorpresarako, Madalako eskenatokiak oso akustika ona duela iruditu zitzaidan”.



Mendaro Ospitaleko larrialdi zerbitzu berria zabaldu dute, “herritarren zein profesionalen beharretara egokitutakoa”

Hiru milioi euroko aurrekontua izan dute larrialdi zerbitzua handitzeko obrek

Eguaztenean zabaldu zuten Mendaro Ospitaleko larrialdi zerbitzu berria. Hiru milioi euroko aurrekontua izan dute obrek, eta lanok amaituta, 1.300 metro koadroko azalera hartu dute larrialdi zerbitzuek. “Ezinbestekoa zitzagun obra hauek egitea, orain hamar urte hasitako lan ildo jarraitzeko. Poliki-poliki eta isil-isilik jardun dugu lanean, baina beti aurrera eginez, Mendaroko estiloan. Talde profesional ona geneukan, baina bitartekoak falta genituen, eta larrialdi zerbitzu berri hau herritarren zein hemen lanean ari diren profesionalen beharren arabera diseinatu dugu”, azaldu zuen Gorka Sarasola Mendaro Ospitaleko gerenteak aurkezpen ekitaldian.

Gorka Sarasolaz gain, Jesus Mari Fernandez Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuordeak, Eduardo Garate Osasun Laguntza-



rako zerbitzuen zuzendariak, eta Irune Berasaluze Mendaroko alkateak parte hartu zuten, baina Donostiako Ospitaleko arduradunak eta Mendaro Ospitaleko lantalde handi bat ere han izan zen. Beharrak eragindako obrak izan direla nabarmendu zuten guztiek, eta hainbat datu eman zituzten horren adierazgarri. Mendaroko Ospitalea da Debabarrenako ospitalea, 80.000 herritarren erreferentziako ospitalea. Iaz, 7.400 lagun ospitaleratu zituzten bertan, 600 haur jaio ziren, eta 5.500 ebakuntza kirurgiko egin zituzten. Era berean, 31.000 lagun artatu zituzten larrialdi zerbitzuetan. Azken hamarkadako datuekin alderatuz gero, baina, nabarmena da gora egin duela. Azken hamarkadan eguneko ospitale mediko-kirurgikoaren jarduera hirukoiztu egin da, eta ingresu gabeko ebakuntza kirurgiko kopurua, bikoiztu. Era berean, azken bi urteotan hirukoiztu egin da etxeko ospitalizazio zerbitzua erabili dutenen gaixoen kopurua.

Udalbiltzako hautetsiei babesa agertu zieten zapatuan Elgoibarren



Udalbiltzaren aurkako epaiketa gerturatzeko ari den heinean, gehitzen ari dira udal hautetsien instituzioaren aldeko ekimenak, eta Elgoibarren ere, irten ziren kalera zapatuan. EAK, Aralarrek eta Ezker Abertzaleak bat egin zuten deialdiarekin, eta baita hainbat herritarrek ere. Espainiako Auzitegi Nazionalen uztailaren 15etik aurrera epaituko dituzten 22 lagunei elkartasuna adierazi eta Udalbiltzaren kontrako auzia bera salatu zituzten. Udalbiltzakoa hautetsien kontrako auzia izanik, udaletxe aurrean egin zuten protesta Elgoibarren, eta baita Euskal Herriko beste zenbait udalerritan ere.

Ekitaldia **IMH sariak**



IMH Sariak banatu dituzte gaur eguerdian. Ekintzailetasuna eta nazioartean egindako lana goratu dituzte aurten, eta Ibai Zubikarai itziartarrak (1983) jaso du IMHko ikasle ohi onenaren saria. Proiektu Mekanikoen Garapeneko goi mailako zikloa ikasi zuen IMHn, eta azkeneko urtean Norma enpresan egin zituen praktikak. Praktikak amaitu ondoren, Txandakako Ingeniaritza ikasi zuen IMHn, eta Zumaia-ko Korta Group enpresan hasi zen lanean, produkzio sailean. Ikasketak amaitu ostean, 2007an Indiara joan zen Kortatik, eta ordutik Korta Engineering Indiako zuzendaria izan da. Zubikaraiz gain, beste hainbat ikasle ere saritu ditu IMHk, tartean elgoibartar bat: Eduardo Etxeberria (1982). Elgoibarko ikasle aipagarrienaren saria jaso du Etxeberriak. Sari banaketa ekitaldia Santiago Sastre IMHko irakaslea omentzeko baliatu dute, aurten erretiroa hartuko baitu.

Irudia **Pilar ikastetxearen itxiera ekitaldia**

Pilar ikastetxeari agur esateko ekitaldia ospatu zuten zapatuan, ikastetxeko jolastokian bertan, eta 350 ikasle ohi baino gehiago eta Udaleko hainbat ordezkari batu ziren. Meza batekin hasi zuten eguna, eta ondoren, jolastokian bertan egokitutako jangelan bazkaldu zuten guztiek, giro onean. Aspaldiko kontuez eta etorkizunean Pilar ikastetxeak hartuko duen proiektu berriaren inguruan hitz egiteko eta musikaz gozatzeko aukera izan zuten, besteak beste, han bildu zirenek.



Udako ordutegia Gazte Informazio Bulegoak

Datorren astelehenean, hilaren 21ean, udako ordutegia hasiko du Gazte Informazio Bulegoak. Astelehenerik barixakura 9:00etatik 14:00etara zabalduko dute. Kultur etxeko igogailuko obrak direla eta, bulego berria dute orain, eraikin berean, lehengo hitzaldi gelan. Bestalde, Ludotekak eta Gaztelekuak ere, udako programa hasiko dute egun horretan bertan, eta aldaketak izango dira ordutegietan.

Pintxo lehiaketa datorren astean

Ekainaren 24an eta 25ean Elgoibarko II. Pintxo Lehiaketa egingo da. Aurten, hamabi tabernak parte hartuko dute: Txariduna, Iriondo, Gabi, King-Kong, El Gautxo, Gorbea, Madigan's, Iturri, Salento, Ametsa, Lanbroa eta Lojantzi. Lehiaketa eguenean hasiko da, 19:00etan, eta 22:00ak arte iraungo du. Barixakuan, berriz, 11:00etan hasi eta 22:00etan amaituko da. Pintxoak euro bat balioko du. Parte hartzaileen artean bi sari banatuko dira: Elgoibarko Pintxo Onenaren saria eta Herritarren Saria. Azken hori herritarren botoen bidez hautatuko dute. Bozkatzen dutenen artean Belaustegi Jatetxeko dastaketa menu bat zozketatuko da.

Milagrorra txangoa antolatu du Jubilatuen Biltokiak

Milagrorra txangoa antolatu du Jubilatuen Biltokiak, hilaren 24rako. 8:15ean irtengo dira Plaza Handitik, eta bidean hogeita minutuko gelditua egingo dute indarrak hartzeko. Handik Calahorrako merkadilloa ikustera joango dira, eta katedrala ere bisitatuko dute gero. Ondoren, Montencillon geldituko dira bazkal-tzen. Bazkalostean zozketa egingo dute eta dantzaldia ere izango da. Irteera honetarako izena emateko epea zabalik dago. Bazkideek 33 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, 36 euro.

PRIMERAKO ZALEAK



Hiru urteko sufrikarioaren ostean, Lehenengo Mailan da berriro Real. Mendeurrena bete duen urtean itzuli dira txuri-urdinak gorengo mailara, eta ez edonola gainera, Espainiako Ligako Bigarren Mailako txapeldun izan direlako. 2-0 irabazi zion domekan Celtari, duela zortzi urte liga irabaztea eragotzi zion taldeari, eta festa lehertu zen Donostian eta Gipuzkoa osoan. Elgoibarko eta Mendaroko realzaleek gogotik ospatu zuten hain desiratutako igoera.

Ainara Argoitia

Miren Vallejo

“Besoak jaso eta bufanda airean. Halaxe ibili nintzen”

Demaseko arratsaldia pasatu genuen domekan. Esaten den guztia gutxi da. Gehiago ezin. Lanbroa tabernak antolatzen duen autobusean joan ginen. Normalean ilobarekin joaten naiz, baina domekan bera goizean joan zen, eta ni, berriz, arratsalde aldera. Buelta elkarrekin egin genuen, hori bai. 87 urte dauzkat nik, eta 1981. urtetik naiz Realeko bazkide. Sasoi txarrak ere pasatu ditugu, azkeneko hiru urte hauetan bereziki. Gustura joaten ginen, baina sarri sufritzera. Hala ere, gu gustura. Zaila da gustura sufritzea, baina hala zen. Besoak jaso eta bufanda airean. Halaxe ibili nintzen ni domekan. Ezin geldirik egon. Anoetan bertan eta Anoeta inguruan zegoen giroa nik neuk sekula ez dut ikusi. Gero, etxera etorri eta TeleDonosti ikusten egon nintzen berandura arte. Han bizian izan zen, baina han ikusi ez genituenak ere ikusi genituen gero telebistan. Demasa izan zen.





Juan Mari Landa

**“Domekako bizitzearren
bakarrik merezi du
Realekoa izateak”**

Juan Mari Landa, Ane Landa eta Lorenzo Zubiaurre.

Itzela izan zen. Ahotsik gabe nago ia, pentsa! Anerekin joan nintzen, ilobarekin. Garbi neukan igo, igoko ginela, eta lasai joan nintzen, baina hara iritsi eta han zegoen jendetza ikusi nuenean... Sekula ez dut ikusi nik horrelako girorik Anoetan. Domekako bizitzearren bakarrik merezi du Realekoa izateak. Ez nuen halakorik bizi. Nik neuk Realarekin bizi ditudan momenturik onenak lehenengo bi ligak irabazi genitueneko ak dira, baina domekakoaren pareko harrerarik sekula ez dut ikusi nik Donostian. Bilbotarrak-eta badakigu zer diren, baina realzale batentzako domekan Donostian bizi izan zen giroa paregabea da. Estadiumaren inguruan, 17:00etan, zoramena zen nagusi. Iloba ere sinetsi ezinda zegoen. Ikusi egin behar zen zelako “Real” oihuak egin zituen hark. Eta etxeko txikienak zelako paliza eman zigun etxetik irten ginenean? “Ni ere Real!” esaten zigun, eta berak ere joan nahi zuela. Ez genuen eraman, eta Mendarora itzuli ginenean ipurdian jo behar zigula esanez etorri zitzaigun saltaka, haserre. Izugarritzakoa izan zen. Nik Realarekin hartu dudan penarik handiena Vigon hartu nuen, titulu bila joan eta esku hutsik bueltatu ginenean. Bigarren Mailara jaistea penagarria izan zen, batez ere Klubarentzako diru galera handia delako, baina nik garbi daukat plaieroetan jokatzeko ere, ni beti realzalea izango naizela. Ni Anoetara nire taldea ikustera joaten naiz. Garbi daukat Athleticen kontrako derbi bat ikustea edota Real Unionen kontrako derbi bat ikustea ezberdina dela, baina ni Real ikustera joaten naiz. Lehen Mailan jokatzeko talde polita daukagu. Aurrelari kurioso bat-edo ekartzen badugu, egingo dugu zer edo zer, orain ditugun jokalariek bat eginda daudelako, eta hori baino gauza handiagorik ez dagoelako. Domekan gazte jende guztia txuri-urdinez jantzita eta disfrutatzen ikusteak izugarritzako poza eman zidan. Hunkigarria izan da. Poztu naiz jokariengatik ere. Ni oso Aranburutarra naiz. Aranburu jokalaria baino gehiago da Realean.

Lorenzo Zubiaurre

“Orain Madrilen kontra ostikadak ematen ikusi behar ditugu”

Demasa izan da. Nik Realarekin halako gehiago ere pasatu ditut, hala ere. Zamoraren golari esker liga irabazi genueneko akordarazi zidan domekakoak. Sekula ez dut ahaztuko. Haiak ziren desfileak-eta! Bigarren Mailara jaistea ere nekez ahaztuko dut, baina! Ez nuen berehalakoan tragatu. Lotinaren esanak entzuten egon ginen azkenera arte, eta bi partida falta zirela bazihoala esan zuen, eta han joan zen.

Urte mordoan naiz ni Realeko bazkide. Ehun urte eta ez, baina asko bai. Bigarren Mailan egin dituen hiru urteetan gutxiago joan naiz, tebibetaz partida gehiago bota dituztelako, baina lehen, beti joaten nintzen, hamabostean behin. Hala ere, joan ez arren, bazkide izaten jarraitu dut, eta hantxe egon da nire lekua. Koadrila ere egin dut nik Anoetako harmailetan, eta domekan hantxe zeuden guztiak. Nik segurutzat neukan igoko ginela, eta lasai joan nintzen, baina, bai, amaitu arte, ezin guztiz trunkildu. Hunkigarria izan zen oso. Elgoibartarrek antolatzen duten autobusean joan nintzen, Mendarotik pasatzen zena kendu zuten-eta. Sabin Zubizarreta, Jesus Muguruza... bidaia aspaldiko lagunekin egin nuen. Ospatu ere egin nuen, behar zen moduan. Anoetan bertan zabaldu genuen guk xanpain botila. Plastikozko edalontzietan hartu behar izan genuen, ezkutuan sartu zutelako xanpaina, baina ondo.

Orain Madrilen kontra ostikadak ematen ikusi behar ditugu. Nahikoa sufritu dugu, eta orain, gozatzea tokatzen zaigu. Badakigu puntan ezingo garela ibili; beti Bartzelonaren eta Real Madrilren atzetik ibili beharko garela garbi dago, baina hortik atzera ere asko daude, eta gu beste batzuk beste bagara. Jokalari gogorrak gustatzen zaizkit niri, Rivas-eta. Gero beste mutil koxkor batzuk ere badaude onak, Zurutuza eta beste batzuk. Futbolariak gustatzen zaizkit neri, ez beste makal horiek.

Garbiñe Gorostiza

“Zoragarria izan da. Halakorik ez dut sekula ikusi nik”

Egun zoragarria izan zen domekakoa. Partidua amaitu zenean di-da batean bueltatu behar izan ginen autobusera, baina zenbat disfrutatu ote genuen guk han! Euririk egin ez balu, geldituko ginen Donostian, behar bezala ospatzeko, baina bueno, Elgoibarrera itzuli ginen. Garbiñe Uriguen, Miren Vallejo eta beste koadrila handi bat joan ginen Elgoibartik.

Oso hungigarria izan zen. Ni neu ez naiz bazkide, baina lau-bost urtean ez dugu partida bat galdu guk. Realzaleak gara. Hantxe pasatu ditugu sufrimendu eta poztasun guztiak, oso gustura gainera. Partida bukaerako ekitaldia oso polita antolatu zuten gainera; koheteak ere zuri-urdinak irten ziren han. Lehenengo Zatian sufritu genuen apurxo bat, baina bigarren zatiak beste itxura bat hartu zuen. Baina lasai geunden, berdinduta ere nahikoa genuelako. Jende guztia traste txikitxoak atera eta argazkiak egin eta egin. Eta guk ez kamera eta ez ezer aldean!. Demasa izan zen. Jokalariak ere denak bat egin da, baita gure elgoibartarra ere tartean, eta kalea, berriz, realzalez beteta. Ezin sinetsita geunden. Halakorik ez dut sekula ikusi nik. Poztu naiz jokalariengatik eta baita gu guztiogatik ere. Rivas gustatzen zait neri gehien. Bera baino hobeak izango dira, beharabada, baina horrek egin duen beste lan...

Asko poztu nintzen, eta gaur ere [astelehenean] bagoaz gu Donostiara, ospakizunetara. Ez geneukan asmorik, baina zuk deitu diguzunean berotu gara, eta hor goaz. Lehenengo Mailan gaude, neska! Entzun dut, gainera, Messiren lehengusua eta Agueroren anaia ekarri behar ditugula; Salbatuta gaudel!



Garbiñe Uriguen eta Garbiñe Gorostiza.

Eloisa Zubiaurre



“Orain Lehen Mailara igo garela, laster hasiko gara berriz senarra eta biok mokoka”

Garbi neukan Anoetan egon beharra neukala. Realak liga irabazi zuenean ere hantxe nengoen ni, lehen le-roan, eta, garbi neukan, kosta ahala kosta, sarrera lortu beharra neukala. Lagun batekin joan nintzen, bazkalostean, eta han zegoen giroa ikusi genuenean egun guztirako joan ezaren penarekin gelditu ginen. Primeran pasatu genuen. Kamiseta jantzita joan ginen autobusean, fenomeno. Domekakoa demasa izan zen. Zenbat oihu eta zenbat kantul! Etxera etorri eta *plaf* gelditu nintzen, hori bai. Horrenbeste poz eta horrenbeste ilusio...bueltan ere han etorri ginen, besarkada honi eta besarkada hari. Telebistan bota zuten guztia grabatuta daukat, berriro ikusteko. Hain izan zen handia domekakoa...

Etxean senarra Athleticekoa da, baina bi semeak realzaleak dira. Haiek behintzat zuzendu ditut. Txiki-txikitan erakutsi nien Realeko kantua, eta ekarri nituen nirera. De-

na den, nire senarrak asko hitz egiten du, baina hor gelditzen da gero, berak lagundu zidalako etxean Realeko bandera handia jartzen ere. Hori bai, Realak Athleticen kontra jokatzeko duenean ez du nitaz ezer jakiterik nahi izaten. Athletic atzerritarrek fitxatzen hasten den egunean bakarrik lagako ei du berak Athletic. Derbiak jokatzeko direnean, Anoetara beti joaten naiz, baina Bilbora ez, ikaragarri sufritzen dudalako. Ni Anoetara noanean bera kotxea hartu eta hor norabait joaten da, edo zinera, bestela. Ez du ezer jakiterik nahi izaten. Diskusioak izaten dira. Azkeneko hiru urteetan ez dugu aparteko arazorik izan, baina orain Lehenengo Mailara igo garela, hasiko gara berriz elkari mokoka. *Ja, ja.*

Josu Zubiaurre

“Hiru urteko sufrimenduaren ostean, sekulako lasaitua hartu dut nik neuk”

Lagun batekin joan nintzen domekan Donostiara, eguerdi aldera. Aurten lortuko genuela jakin bagenekigun eta partidu aurreko poteorako joan ginen. Iritsi ginenean harrিতuta gelditu ginen han zegoen jendetzarekin, eta zer esanik ez, gero, Anoetan sartu eta barruko giroa ikusi genuenean. Itzela izan zen, ahaztezina. Zalantzarik gabe Realak eman didan egunik onenetakoa izan da. Oraindik ez gara kontziente lortu dugunaz, baina handia da.

Datorren urtean jaitsi egingo garela esaten dute batzuek. Batek daki, baina orain ospatu dezagun, merezi dugu-eta. Sekulako lasaitua hartu dut nik neuk behintzat. Hiru urteko sufrimenduaren ostean, azkenean badugu zer ospatu! A zelako hiru urte pasatu ditugun! Anoetara joan, eta batean galdu, bestean berdindu... buff! Nahi eta ezin ibili gara. Iaz ere, pauso batera gelditu ginen, eta behingoz iritsi da eguna. Domekakoa itzela izan zen, eta asteleheneko harrera ere, oso polita. Ezberdina, baina polita. Donostia guztia txuri-urdinez jantzita ikustea bera demasa da. Hunkigarria. Partidu amaierako ekitaldia ere oso hunkigarria izan zen. Jokalari guztiak elkarrekin agertu ziren, eta polita izan zen. Aranburu da nire gustukoena. Ia liga irabazi zuen taldetik bera gelditzen da bakarrik, eta asko eman du Realaren alde. Kanpora joateko aukerak ere izan ditu, eta hemen gelditu da. Bera da kapitaina, gure kapitain handia.



Agustin Alonso 'Kaiser'



“Lehen ia lau autobus betetzen genituen; azkeneko urteetan, bakarra”

Gogorak izan dira azkeneko hiru urteak. Azkeneko hirurak bakarrik ez, azkeneko seirak ere bai, Lehenengo Mailan egin genituen hiru denboraldiak hari batean pasa genituelako. Bigarren Maila gogorra da, eta Realak jaitsi zenean jende asko hoztu egin zen. Jo eta Su peñak ere ez du jarraipenik izan. Jendea ezkondu egiten da, umeak izan... eta atzetik beste inor ez baldin badator horri eusteko prest, horixe gertatzen da. Nik azkeneko hiru urteetan bost abono izan ditut denboraldi osorako, eta jendeari eskaini eta inork ez zuen joan nahi izaten. Lehen hiru-lau autobus ere betetzen genituen hemen, eta azkeneko urteetan, bakarra bete dugu. Anoetara joan, eta 12.000 lagun egoten baziren, ondo. Eta klaro, disfrutatzeko ordaintzen du zaleak, bestela ere badago dirua non gastatu-eta. A zelako depresioak izaten nituen nik astelehen goizetan.

Domekakoa, hala ere, handia izan zen. Anoeta gainezka, eta Donostia probintziako jendeak hartuta. Izan ere, donostiarren-

gaitik bakarrik balitz, Realak ez litzateke ezer. Lau katu, horixe. Donostiako Parte Zaharrean sekulako giroa zegoen. Nik nere kasa zera pentsatzen nuen: “Ez dugu barren ezer lortu! Lehenengo Mailara igo besterik ez, eta begira zelako jendetza!”. Jai bat izan da. Han egon nintzen, baina bost bat minutu ikusiko nituen. Realak, baina, eman digu hau baino egun hoberik, baina azkenekoak hain izan dira txarrak...Vigon bigarren gelditu ginenean-eta...Ordukoak dira nik ditudan trapu txuri-urdin guztiak. Hala ere, haserre ere banago Realarekin, Klubarekin. Hogei urte inguru daramatzat autobusak antolatzen, eta a zelako narraskeria egin duten sarrerak banatzeko orduan. Klub moduan baloreak galtzen ari da. Lehen etxeagoa zen. Orain, berriz, kanpokoak hobeto zaintzen ditu, beti-beti ondoan izan dituenak baino.

JON GURRUTXAGA

Jon & Sugramas taldeko abeslaria

Bateria alde batera lagata, abeslari eta konposatzaile lanetan dihardu orain Jon Gurrutxagak. Jon & Sugramas dauka izena bere proiektu berriak, eta estreinako diskoa kaleratu berri dute. Ekaitz Garmendia eta Iban Hernandez azpeitiarrek eta Andoni Mujia elgoibartarrak osatzen dute taldea. Dagoeneko hasi dira kontzertuak ematen, eta gaur gauean Ondarruko Kafe Antzokian joko du laukoteak.



“Garbi neukan ingelesez abestu nahi nuela, baina ez nuen euskara erabat alboratzerik nahi”

Noiz eta nola ekin zenion Jon & Sugramas proiektuari?

UEK taldean bateria jotzen nuela, abestiak konposatzen hasi nintzen. Bilduma txiki bat osatu nuen, eta argi neukan abesti horiei irteera eman behar niela, eta taldea sortzea erabaki nuen. Legen Beltza taldeko Ekaitz Garmendia gitarra jolea aspalditik ezagutzen dut, eta berarekin jarri nintzen kontaktuan, banekielako *blues*-a gustatzen zaiola. Iban Hernandez bateria jolea Ekaitzen bitartez ezagutu nuen, eta baxua jotzeko Andoni Mujikarekin egin nuen berba. Iraila amaieran osatu genuen laukotea, eta esan beharra daukat taldeki-deek lan handia egin dutela abestietan. Nik konposatuta eta grabatuta neuzkan ordurako abesti guztiak, baina bakoitzak bere arregioak egin ditu. Azkenean denon artean osatu ditugu kantak.

Nondik dator Jon & Sugramas izen bitxi hori?

Nire proiektua delako jarri nion Jon izena, baina ez nuen nahi Jon Gurrutxaga bezala aurkeztea. Beste musika estilo bat izango balitz agian, bai, baina oraingoz talde bat gara, eta talde izena jarri nahi nion. Interneten hasi nintzen izen bereziren baten bila, ez nuelako nahi ingelesezko edo euskarazko hitz bat. Landareen izen zientifikokoak aurkitu nituen, eta sugrama gustatu zitzaidan. Fruitu pozointsuak ematen dituen suge belarra da, eta Euskal Herrian hainbat modutan deitzen zaio. Landare horren historia gustatu zitzaidan, eta horregatik aukeratu nuen.

Zer aurkituko dute entzuleek zuen diskoan?

11 abestiz osatutako lana da: ingelesezko sei abesti, euskarazko lau eta instrumental bat. Azken hau oso berezia da, eta besteekin alderatuta, desberdina. Aste Santu inguruan grabatu genuen Bilboko Koba estudioan, eta Gaztelupeko Hotsak disketeak argitaratu du.

70eko hamarkadako rock estiloa da nagusi diskoan. Blues ikutu bat ere badauka, baina batez ere, rock klasikoa egiten dugu.

Abesti gehienak ingelesez egin dituzu. Zergatik?

Garbi neukan ingelesez abestu nahi nuela, baina ez nuen euskara erabat alboratzerik nahi, eta abesti batzuk euskaraz egin ditut. Nik entzuten dudana musika gehiena ingelesez da, eta ohituta nago ingelesez abesten. Nahiz eta nire hizkuntza euskara izan, natural irteeren zait ingelesa. Gainera, oro har, jendea ohituta dago rock-a ingelesez entzuten. Nire ustez, fonetikoki oso ondo geratzen da.

Zeri abesten dio Jon & Sugramas taldeak?

Denetarik dago. Gai pertsonalak daude alde batetik: Xubanen jaiotza kontatzen dut *Bidaia* abestian, eta aitita eta amamari eskainitako abesti akustiko bat ere badago. Bestetik, ekologia, sexua, immigrazioa eta gizarteari buruzko gaiak abesten ditugu. Horrez gain, zuzeneko emanaldietan Led Zeppelin eta beste hainbat talderen bertsoiak jotzen ditugu, gure abestiekin kontzertua motz geratuko litzatekeelako.

Nola heltzen diozu proiektu berri honi?

Pozik eta gogoz beterik. Abesti batzutan, gainera, gitarra elektrikoa ere jotzen dut, eta ilusio handiz nago. Nabarmendu nahiko nuke, baita ere, taldekideen lana. Iban eta Ekaitz Legen Beltza trash metal taldetik datoz, baina begiak itxi eta diskoa entzuten baduzu, ez da ezer igartzen. Andoni Mujika estilo honetan arituagoa da, baina lan ona egin du. Bestalde, Patxi Zabaletak gitarra akustikoa jo du abesti batean, Keuk egin ditu gitarra konponketak *Bidaia* kantan, eta Fredi Pelaezek organoa jo du hiru abestitan. Guztiei eskerrak ematen dizkiet.

Deba ibaiari begira daude Altzolan San Juan sua pizteko

Ekainaren 23an egingo dute San Juan sua, 23:00etan

Altzolako jai batzordeak egitarau zabala prestatu du San Juan jaierarako. San Juan arbola jarrita hasiko dira festak hilaren 23an. Egun berean piztuko dute San Juan sua Deba ibaian, 23:00etatik aurrera, eta eta egunotako euriteen ondorioz, ibaiari begira daude sua piztu ahal izango duten kezka. Goizaldera arte luzatuko da jai dantzaldi eta txokolate janarekin.

San Juan eguna goizean goiz hasiko dute. 6:00etan portaletan San Juan adarrak jartzen hasiko dira, eta goizean zehar prozesioa, meza eta herri kirolak izango dira, besteak beste. Hilaren 25ean San Juan txiki eguna ospatuko dute, eta astebururako ere antolatu dituzte ekitaldiak. (Egitarau guztia, agendan).



Hip-Hop ikastaroa eta erakustaldia uztailaren 3an

Uztailaren 3rako Hip-Hop ikastaroa eta erakustaldia antolatu dituzte Elgoibarren. Interesatuak ordubeteko bi ikastaro izango dituzte aurrera. Ikastaro bakoitzak hamabi euro balio ditu, eta biak eginez gero, hoge euro ordaindu beharko dira. Horrez gain, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzako ikastaroa eskainiko du Maria Escobedok, Kiroldegiko Hip-Hop irakasleak, eta horren prezioa bost eurokoa izango da. Ekitaldia amaitzeko, irakasleek eta Hip-Hop ikastaroetan dabilzan elgoibartarrek dantza erakustaldia egingo dute. Izena emateko edo ikastaroari buruzko informazioa eskuratzeko 679 23 76 11 (Maria) telefonora deitu daiteke, ekainaren 30a baino lehen.



Ehunka lagun batu ziren parrokan Bergarako Musika Bandaren kontzertua ikusteko



Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua eskaini zuen joan zen zapatuan San Bartolome parrokan, eta ehunka lagun bildu ziren kontzertuaz gozatzeko. Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurrenako ekintzetako bat izan zen, eta berriro ere parrokia jendez bete zen. Elgoibarko musika bandak, bestalde, hilero kontzertua eskainiko du datorren domekan, Herriko Antzokian.

AEKren udako eskaintza

Ohiko euskara ikastaroez gain, hainbat berrikuntza prestatu ditu AEK euskaltegiak uda honetarako. Batetik, jarduera barnetegiak egingo dituzte, eta bestetik, barnetegi ibiltaria antolatu dute. Informazio gehiago 902 362 294 telefonoan.

Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar

Elgoibar Ikastolaren eguna ospatuko dute bihar, ekainak 19. 11:00etan hasiko da jai, eta goiz guztian zehar jolasak, olinpiadak eta beste hainbat ekintza egingo dituzte. 14:00etan bazkaltzeko batuko dira, eta arratsaldean jarraituko dute ekitaldiekin. 18:30ak aldera bukatuko da ospakizuna.

160 lagunek parte hartu dute Elgoibar bi erroberatan egitasmoan

Elgoibar bi erroberatan egitasmoa egin zuten joan zen domekan, eta 160 lagunek hartu zuten parte. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, eta azken bi urteetan baino jende gutxiago batu zen arren, antolatzaileak “pozik” agertu dira ekitaldiak izan duen harrerarekin. Ibilaldia- ren ondoren, hamaiketako egin zuten guztiek Plaza Handian. Egitasmoaren helburua ibilaldi laburretan bizikleta gehiago erabiltzea da. Kalamua guraso elkarteak eskerrak eman dizkie ibilaldian parte hartu duten guztiei, eta baita antolakuntzan lagundu dutenei ere, hala nola, Udalari, udaltzainei, Gurutze Gorriari, Nava inprimategiari eta Beristain Banaketak enpresari.



Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net

Jubeniletako txirrindulari lasterketa domekan, Mendaron

Egutegi kontuengatik, antolatzaileek aurreratu egin behar izan dute lasterketa, eta domekan, hilaren 20an, jokatu da. 16:00ak aldera abiatuko da tropela Mendaroko frontoitik, eta 85 kilometro eta erdiko ibilbidea osatu beharko dute txirrindulari gazteek; tartean, Kalbario eta Olatz igo beharko dituzte. Helmuga Mendaroko frontoiko aldapan izango da, iaz bezala. Sari banaketaren ostean, lasterketa hau finantzatzeko ateratako errifen zozketa egingo dute antolatzaileek, frontoian bertan. Landa erretegiari bi lagunentzako afaria zozketatuko dute.

CD Elgoibarrek aurtengo jokalari onenak saritu ditu denboraldi amaierako afarian



Joan zen barixakuan egin zuen CD Elgoibarrek denboraldi amaierako afaria Sigma jate-txean, eta urteko jokalari onenak saritu zituzten han. Maila bakoitzeko golegilerik onenak eta jokalari erregularrenen sariak banatu zituzten, besteak beste. Argazkian ikus daitezke saritu guztiak, Martin Molins presidentearekin.

Xabier Loiolak irabazi du Hiru Txirlo txapelketa

Xabier Loiola sanmigeldarrak irabazi du Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa, 26 punturekin. Aurtengo txapelketan aiastiarrek izan dira nagusi, eta bigarren eta hirugarren postuak ere auzotarrek eskuratu dituzte: Iker Izagirre eta Agustin Irueta, hurrenez hurren.



Lau taldek hartu zuten parte Altolako herri kirol txapelketan

Lau taldek hartu zuten parte joan zen domekan Zubibai elkarteak antolatutako herri kirolen txapelketan, eta Irene, Ana, Lisardo eta Makak osatutako taldeak irabazi zuten. Partaideek sokatiran, lokotx bilketan, txinga eroaten eta zaku lasterketan hartu zuten parte, besteak beste. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, antolatzaileen arabera giro “bikaina” izan zen ekitaldian.



Lea-Ibarra inguruetara irteera uztailearen 3an

Lea-Ibarra ingurunea ezagutzeko irteera antolatu du Morkaikok uztailearen 3rako. Munitibar eta Lekeitik arteko bide gorria jarraituz, hogeiki kilometroko ibilbidea egingo dute. Nahi duenak Otoio mendia igotzeko aukera izango du. Informazio gehiago www.leaibarra.com helbidean aurkituko duzue.

Datorren barixakuan jokatuko dute Nahaste Borraste herri proba

Saltaka, bizikletan eta zakua eroaten egin beharko dute

Datorren barixakuan, ekainaren 25ean, jokatuko da Nahaste Borraste herri proba. Partaideek hiru kirol modalitatetan hartu beharko dute parte: hasteko, zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan. Ondoren, 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, 400 metro egingo dituzte, eta, azkenik, 1.500 metro korrika.

Herritarrek estimu handian dute Nahaste Borraste, eta iaz 50 lagunek hartu zuten parte. David Conde izan zen helmugaratzen lehenengoa, eta, gainera, errekor berria ezarri zuen, 18 minutu eta 25 segundoko denborarekin.

Interesatuak Kimetz elkartearen eman dezakete izena, egunean bertan, 17:00ak baino lehen. Proba 19:00etan hasiko da.



Ekainaren 21era arte eman daiteke izena Kirol Udalekuetan

Kirol Udalekuetan izena emateko epea ekainaren 21era arte luzatu du Udal Kirol Patronatuak. Hasieran zerrendetatik kanpo geratu zen jendeak, beraz, badu oraindik aukera. Kirol Udalekuak ekainaren 28an hasiko dira. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko Olaizaga kiroldegira deitu daiteke (943 744 415).

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Lagunak Txapelketa

Urko Iriondo 18 – Ibai Calvo 16 (Benj.)

Ion Beristain 18 – Paulo Larreategi 9 (Benj.)

Paul Fernandez 18 – Eneko Gonzalez 10 (Benj.)

Eñaut Igartua 6 – Mikel Astigarraga 18 (Benj.)

AGENDA

ESKU PILOTA

18, barixakua

18:00 Finalak

Urko Iriondo – Paul Fernandez (Benj.)

Jon Beristain - Mikel Astigarraga (Benj. B)

Jon Urruzola - Iker Odria (Aleb.)

Mikel Agirreberia - Iker Calvo (Inf.)

Areto futboleko jokatzeko deialdia

Debabarrena Klubak areto futboleko jokatzeko deialdia egin du. Datorren urteko denboraldirako prestaketa lanak hasi ditu dagoeneko, eta jokalaria bila ari da. Jubenilak, kadeteak eta infantilak behar dituzte, hau da, 1992 eta 1998. urteen artean jaiotakoak. Interesatuak Eibarko Unibertsitatean azaldu beharko dute gaur, 17:00etan, kirol arropak jantzita.

Beleak eskubaloit taldeak irabazi du Eskola Kiroleko Gipuzkoako txapelketa

Elgoibar Ikastolako Beleak eskubaloit taldeak irabazi du Gipuzkoako Eskola Kiroleko txapelketa alebinetan. Usurbilgo Udarregi taldearen kontra jokatu zuten finala joan zen asteburuan, eta "emozioz" beteriko partida izan zela adierazi dute protagonistek. Alebinetan gol kopurua barik, talde bakoitzak irabazten dituen parteak hartzen dira kontuan, irabazlea nor den zehazteko. Lehen zatia Elgoibarrek irabazi zuen, eta bigarrena, Usurbilek. Hortaz, prorroga jokatu behar izan zuten, eta gol bateko aldeaz gailendu ziren elgoibartarrak.



LANA

ESKAERA

- Gizona lanerako prest. Margolari, igeltsero laguntzailer edo elektrikari lanak egingo nituzke. ☎ **606 612 834 (Raul)**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ **671 476 869**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko presti. ☎ **686 234 612**
- Emakumea arropak lisatzeko prest. ☎ **943 531 103 (20:00etatik aurrera)**
- Gizonezkoa gidari lanak egiteko prest. ☎ **650 538 274**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ **647 065 746**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ **669 311 385**
- Emakumea abuztuan lan egiteko prest. ☎ **606 169 667**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, astean zehar edo asteburuetan, interna bezala edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Neska, ikaslea, umeak zaintzeko prest. Ekainean, uztailean eta abuztuan. ☎ **630 700 272**
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: tabernak, portalak... ☎ **663 786 976**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, adinakoak zaindu edo tabernan lan egingo nuke. Papalak legez ditut. ☎ **662 247 584**
- Mutila baserrian, sukaldari laguntzaile edo nagusiak zainduz lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **646 321 678**

- Neska abuztuan edozein lan egiteko prest: garbiketa lanak, nagusiak edo umeak zainduz... ☎ **609 217 705**
- Mutila lanerako prest. Sukaldari arabiarra naiz, eta sukalde laguntzaile moduan lan egin edo okin lanak egingo nituzke. Etxeko lanak edo nagusiak ere zainduko nituzke. ☎ **609 217 705**

ESKAINNTZA

- Zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea alokatzen dut Gasteizen, ikasleentzako. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berritua, erdigunean. ☎ **689 789 743 / 943 741 898**
- Etxea salgai Elgoibarren, erdigunean. Berritua, eguzkitsua, altzariekin, igogailua eta ganbarearekin. 38 milioi pezeta. ☎ **652 727 631**
- Etxea salgai Mendaron. Mendarozabal plazan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. ☎ **943 033 493**
- Pisua salgai Pedro Muguruza etorbidean. Berritua, altzariekin. Ganbara eta garajea ditu. ☎ **678 883 051 / 943 742 808 (gauez)**
- Etxea alokatzen dut Benidorm-en. Erdigunean, hondartzatik gertu, erosoa, aire egokitua eta igerilekuarekin. ☎ **943 740 628**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **606 169 667**

GARAJEAK

- Garajea salgai edo alokairuan Jausoron (Plaza Handitik gertu). 17m2. Motoa gordetzeko edo trasteleku modura erabiltzeko egokia. Merke. ☎ **669 022 573 / 943 740 146**

- Garaje itxia alokatzen dut udaletxe aldamenean. ☎ **628 764 686**
- Autoa edo furgoneta sartzeko moduko garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. Merke. ☎ **646 966 198**
- Garajea salgai Urasandiko Anayak edifikazioan. ☎ **620 856 768**
- Garaje itxia salgai Jausoron. ☎ **652 727 631**
- Garajea alokatzen da Pedro Muguruza 11n. ☎ **605 775 398**

BESTELAKOAK

- Bi zintzilikario dituen katea galdu dut. Balio sentimentala handia dauka. Saritu egingo da. ☎ **656 309 677**
- Haurarentzako sehaska behar dut. ☎ **657 083 020 / 943 530 644**
- AC/DC taldeak ekainaren 28an Bilbon emango duen kontzerturako sarrerak saltzen ditut. ☎ **671 841 563**
- Volkswagen furgoneta-arentzako bizikletak garraiatzeko erosiko nuke. ☎ **671 841 563**
- Perikito bat aurkitu dut. ☎ **680 696 403**

PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak emango nituzke uztailean. Goizez. ☎ **688 664 727**
- DBHko gaztelania eta matematika eskolak emango nituzke ekainean eta uztailean. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro

Jarri ezazu zure publizitatea

B
BARREN
astekarian
943 743 704





• Zorionak, **Malen**, polit hori! Etxeko denon, eta bereziki, Garaziren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, gure **Ander**, bihar 11 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez, muxu handi bat. Urduuri zaude, ezta?



• Zorionak, **sorgintxo**, zure 3. urtebetetzean. Maitasunez, aitatxo, amatxo eta Sararen partez.



• Zorionak, **Maria**, domekan urtebete egingo duzulako. Familiakoen, eta bereziki, aittitta eta amamaren partez! Paaaaa!



• Iritsi da eguna! Zorionak, **Markel**, zure 3. urtebetetzean, denon partez. Ondo pasa gaurko eguna.



• Zorionak, **Malen**, asteazkenean urtetxo bat egin zenuelako. Muxu potolo bat, bereziki, Intza, Nahia eta Haizearen partez.



• Zorionak gure etxeko **futbolariari**, hilaren 21ean 8 urte egingo dituelako. Etxekoen partez, ondo pasa, txapeldun!



• Zorionak, **Marek**, 7 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **panpoxa**, ekainaren 6an 3 urte egin zenituelako. Pa bat, Lurdes, Manuel, osaba-izeba eta Dunaren partez.



• Zorionak, **Oihanel** 8 urte dituzu dagoeneko! Ondo pasa, maitxi! Familiakoen, eta bereziki, Mikelen partez.



• Zorionak, **aita!** astelehenean egun ona pasa, eta ahaztu zure *pata chula!* Paula, Diego eta Jorgeren partez.



• Zorionak, **pareja!** Azkenean iritsi da zuen eguna! Oso ondo pasa! Koadrilakoen eta familiakoen partez.




• Zorionak, **Camila**, maiatzaren 14an urtebete egin zenuelako, eta, baita zuri ere, **Pedro**, bihar 9 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, asko maite zaituztegu.



• Zorionak, **Josu eta Maite**, gaur eta domekan zuen urtebetetze egunak izango direlako. Muxu handi bat familiakoen partez. Urteak aurrera doaz!



• Zorionak, **bikote!** Azkenean heldu da zuen egun handia! Seguru primeran pasako dugula. Koadrilakoen partez.



• Zorionak, **bikote!** Azkenean heldu da zuen eguna! Ondo pasa eta muxu bat familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko

bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

20 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK

24 ORDUZ

18	Etzeberria (<i>Santa Ana</i>)
19	Fernandez Goizez: Etzeberria (<i>Erros.</i>)
20	Fernandez
21	Yudego
22	Fernandez
23	Etzeberria (<i>Erros.</i>)
24	Ibañez
25	Fernandez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARRREN.net

18 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

Antzerkia

20:00 'Superplast'

Hortzuga teatroak *Superplast* kale antzerkia aurkeztuko du, Madalako parkean.

19 zapatua

Elkartasun erromeria

11:00 Harrera

12:00 Bertsolariak eta trikitilariak

Ondoren, herri kirolak

14:30 bazkaria

17:00 bertso saioa

18:00 erromeria

Sallobenten, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta.

Jaia

11:00 Ikastolaren eguna

Egun osoko jaia antolatu dute. Goizean jolasak eta olinpiadak egingo dituzte, eta puzgarriak ere egongo dira etxeko txikiengiztat. Bazkaltzeko batuko dira eguerdian, eta ondoren lehiaketak, musika, dantza saioak eta sorpresa izango dira.

20 domeka

Musika

12:30 Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

1. *Club cocherito*, pasodoblea (Fco. Saez).

2. *Tancredo*, obertura (G. Rossini)

3. *Revival Rag 1920*, fantasia (Arr. M. Peeters)

4. *La gran via*, selekzioa (Chueca-Valverde)

5. *Super Mambo*, manbo-a (D. Perez-Prado).

24 eguena

Lehiaketa

19:00 Pintxo lehiaketa

Elgoibarko ostalariak pintxo lehiaketan hartuko dute parte. 22:00ak arte egongo da pintxoak dastatzeko aukera.

25 barixakua

Lehiaketa

11:00 Pintxo lehiaketa

22:00ak arte egongo da pintxoak dastatzeko aukera.

Kirola

19:00 Nahaste Borraste

Kimetz elkarteak antolatuta, Elgoibarko herri triatloia izango da. Irteera, Plaza Handian.

SAN JUANAK ALTZOLAN

23 EGUAZTENA

14:30 Txapliguak eta kanpai jotzea

20:00 Meza eta santuari jaietako zapia jartzea

20:30 San Juan zuhaitza jartzea

23:00 San Juan sua, ibaian

Ondoren, dantzaldia

03:00 Txokolate jana

24 ZAPATUA

6:00 Portaletan San Juan adarrak jartzea

11:00 Meza eta prozesioa

12:00 Herri kirolak

22:00 Parrila jana

Ondoren, dantzaldia

03:00 Txokolate jana

25 BARIXAKUA

11:00 Umeentzako tailerrak

13:00 Euskal karaokea

14:30 Herri bazkaria

16:30 Kiribil

18:00 Zezentxoak eta poniak

19:30 Txokolate jana

22:00 dantzaldia

26 ZAPATUA

15:30 Mus txapelketa

17:00 Zezentxoak eta poniak

18:00 Xake txapelketa

19:30 Parrila jana

21:00 Dardo txapelketa

22:30 Dantzaldia

03:00 Txokolate jana

27 DOMEKA

12:00 Auto telegidatuen erakustaldia

16:30 Betiko jolasak

18:00 Zezentxoak eta poniak

19:00 Poker txapelketa

GAZTELEKUKO EKINTZAK

Udako ekintza bereziak:
PARRILLADA,
ekainaren 24an

CAPOEIRA,
ekainaren 30ean

Asteburuan amaitzen da izenematea!

LUDOTEKAKO EKINTZAK



Ostiral honetan
udaldiko festa 17:00etatik
aurrera Ludotekan:
merendola, jolasak eta
jostailu zozketa bikaina!

Maiatzean...

JAIOAKOAK



Paula Boo Riaño
Maiatzak 4
Fran eta Judith



Iker Guinea Martinez
Maiatzak 10
Iosu eta Berta



Ane Puertas Santos
Maiatzak 18
Jon eta Idoia



Elaia Gonzalez Mugertza
Maiatzak 24
Eneko eta Irune

Meerab Imran
Maiatzak 9
Imran eta Hina

Aisha Peñafiel Lopes
Maiatzak 11
Gabriel eta Raquel

EZKONDUTAKOAK

- Javier Arizmendiarieta eta Maria de las Mercedes Morales
Maiatzak 8
- Aitor Sanchez eta Vanessa Gonzalez • Maiatzak 8
- Gorka Zaragozano eta Nora Ezenarro • Maiatzak 22
- Luis Antonio Rogel eta Roxana Paola Eguez • Maiatzak 28

HILDAKOAK

- Santos Lizarriturri Arrieta • 89 urte • Maiatzak 5
- Ciriaco Leizabe Loiola • 62 urte • Maiatzak 10
- Luis Maria Arandia • 50 urte • Maiatzak 10
- Miren Mirari Beristain Alvarez • 45 urte • Maiatzak 11
- Mertxe Dacosta Crespo • 49 urte • Maiatzak 16

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekua) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARREneko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

Erretratu zaharra



1980

Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Garridorena da. 1980. urte inguruan beraien lagun bat Marbellara joan zen bitzera, eta haren despedida egunean ateratako argazkia da. Zubi Ondo elkartean egin zuten bazkaria.

Mahaiaren eskuin aldean, ezkerretik eskumara: Nekane Canabal, Maria Luisa Arkarazo, Maria Luisa Garrido, Begoña Murguruza, Alipia Olasagasti eta Tere Ruiz. **Atzean, zutik:** Carlos Gonzalez. **Mahaiaren ezker aldean,** Mari Aretxaga.

Alzolako Urak bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.
Jai zoriontsuak

www.Alzola.com



SUMMER

Uda



Kensington Elgoibar
C/ San Ignacio 4
Telf. 943 74 02 36
idiomas@kensington-sLes

IKASFUN

- ➔ Data: 2010-07-01etik 2010-07-30era
- ➔ Egunak: Astelehenetik ostiralera
- ➔ Iraupena: 66 ordu
- ➔ Hizkuntza: Ingelesa
- ➔ Adina: 1998-2006 bitartean jaloak
- ➔ Ekintzak: hiru orduko aisialdia
Ingeleseztik, jokoak, irteerak,
kirolak, multimediarekin
jarduerak...
- ➔ Talde murriztuak
- ➔ Prezioa: Egunean 3 ordu - 200 €
Egunean 2 ordu - 175 €
Egunean ordu bat - 100 €

UDAKO IKASTAROAK

- Egunean 2 eta 3 ordu
- Mailak
- Astekako izenemateak
- Kurso modularrak 1-2-1
- Gutxienez 10 ordu
- Matrikula ordaindu beharrik gabe

IKASTARO TRINKOAK

- ➔ Data: 2010-07-01etik 2010-07-30era
- ➔ Egunak: Astelehenetik ostiralera
- ➔ Iraupena: 38 ordu
- ➔ Hizkuntza: Ingelesa
- ➔ Goi mailako moduluak
- ➔ Talde murriztuak
- ➔ Prezioa: Egunean 2 ordu - 303 €
Egunean 3 ordu - 440 €
Egunean ordu bat - 200 €



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

09:45etik-12:15era
15:00etik-20:30era

**5 EGUNeko
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14-16 behea
☎ / Faxe: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxe: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongl

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxe: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosarlo, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76/608 774 032



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.com



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

